

GUGGENHEIM BILBAO

Guggenheim Bilbao Museoak hezkuntzaren eta kulturaren arloko jarduera-programa osatu batekin estreinatzen du uda

Art & Music emanaldiak Museoko terrazan, Wellbeing elkarrizketak, haur eta nerabeentzako udako tailerrak, Bilbao Blues Festival kontzertua, gidaridun bisitaldiak Museoko profesionalekin, Danza en el camino, York Bowen musika klasikoko jaialdiaren kontzertua eta Works & Process programako dantza-emanaldiak dira uda honetarako jarduera aipagarrietako batzuk.

Guggenheim Bilbao Museoak kultura- eta hezkuntza-jardueren eskaintza zabala eskainiko du uda honetan, arte modernoa eta garaikidea herritarrei hurbiltzeko eta, aldi berean, artea eta kultura oro har sustatzeko.

Hona hemen jarduera aipagarrienak:

Haurrentzako tailerrak (ekainaren 26tik 30era, uztailaren 3tik 7ra, uztailaren 10etik 14ra)

Aste honetan hasi dira 6 eta 11 urte bitarteko haurrentzako udako tailerrak. Egun horietan, euskaraz zein gaztelaniaz, ikasi, sortu eta lagun berriak egin ahal izango dituzte, jarduera artistiko dibertigarriekin esploratzen eta deskubritzen duten bitartean. Gainera, jarduera horietako batzuk ingelesez egingo dira British Councilen lankidetzari esker. Proposamenak haur bakoitzaren trebetasun, erritmo eta interesetara egokitzen dira, eta bisitak hartzen dituzte barnean, Yayoi Kusama, Lynette Yiadom-Boakye, Oskar Kokoschka artisten artelanak eta Museoaren Bilduma ezagutzeko.

Summer for Teens (uztailaren 3tik 7ra)

13 eta 17 urte bitarteko nerabeentzako udako tailerra. Diseinuan espezializatutako artistek emango dute, ingelesez, eta parte-hartzaileak Yayoi Kusamaren artelanetan inspiratuko dira beren diseinuak eta prototipoak sortzeko, artearekin erlazionatzeko modu berriak aurkituz. Helburua sormena eta esperimantazioa sustatzea da, artearen eta hainbat arlo profesionalen arteko harremanak arakatzeko bertako artista eta diseinatzaileen eskutik.

Art & Music (uztaileko eta abuztuko asteazkenak)

Jazz musika zuzenean Museoko terrazan, haien erritmo eta nortasunagatik harrিতuta utziko gaituzten banda hauekin:

Uztailak 5- Maite Arregi trio; uztailak 12- Mikel Núñez trio; uztailak 19- Joel Ribeiro trio; uztailak 26- Eneko Dieguez 4tet; abuztuak 2- Andoni Aizpuru 4tet; abuztuak 9- Pablo Maza 4tet; abuztuak 16- Annie Bangheran 4tet.

Wellbeing elkarrizketak (uztailak 5)

GUGGENHEIM BILBAO

María Blasco, Ikerketa Onkologikoen Zentro Nazionaleko (CNIO) ikertzaile eta zuzendaria; Elizabeth Blackburn, Medikuntzako eta Fisiologiako Nobel Saria 2009an telomeroen inguruan egindako lanagatik, eta Amparo Garrido artista bisuala ikerketa zientifikoaren eta sorkuntza artistikoaren arteko lurralde komunei buruz arituko dira elkarrizketan. Besteak beste, garunaren funtzionamendua, estresak osasun fisiko eta mentalean duen eragina, eta edertasunaren eta adeitasunaren garrantzia aztertzeko Museok aldizka hartuko dituen adituekin egingo diren solasaldietako lehena da elkarrizketa hau.

Hausnarketa partekatuak (uztailak 12 eta 19)

Lucía Agirrek, Museoko arte-arduradun eta *Yayoi Kusama: 1945etik gaurdaino* erakusketaren komisario; eta Luz Maguregui, Museoko Hezkuntza koordinatzaileak, Yayoi Kusama artistari eskainitako erakusketa inauguratu berriari buruzko ikuspegi eta irakurketa desberdinak eskainiko dituzte. Iberdrola da *Yayoi Kusama: 1945etik gaurdaino* erakusketaren babeslea.

Zuzeneko opera-emanaldia Teatro Realetik (uztailak 14)

Museoko Entzungelan, *Turandot* operaren zuzeneko emanaldia Teatro Realetik, bere "Semana de la Ópera"-ren barruan programatua. Giacomo Puccinik (1858-1924) konposatu eta Franco Alfanok amaitutako partitura duen hiru ekitaldiko drama lirikoa da *Turandot*, baita operako titulurik ezagunenetako bat ere.

Danza en el camino (uztailak 23)

Burgos & New York Nazioarteko Koreografia Lehiaketa ezaguneko "Danza en el camino" ekimenaren azken saioa hartuko du Museoko Atrioak. Finalista izan diren nazioarteko konpainiak arituko dira bertan, Bilbora iritsi aurretik iparraldeko Done Jakue bidean zehar zenbait emanaldi egin dituztenak.

Bilbao Blues Festival kontzertua (uztailak 27)

Silvia Marsók eta Del Toro Blues Bandek garatutako proiektu baten izena da Blues & Roots. Proiektuak Madrilan izan zuen arrakastaren ondoren, Bilbao Blues Festivalen bigarren edizioan aurkeztuko da Museoko Entzungelan. Musika-mundura jauzi egin duen honetan, Marsók musika beltzaren ariman barrena egindako ibilbidea gidatuko du, "Summer Time" bezalako klasikoekin hasi eta García Lorcaren testuak oinarri hartuta blues doinuetan egindako moldaketa iradokitzaileekin buka.

Bilbao Blues Festival kontzertu pedagogikoa (uztailak 28)

Haurrentzako kontzertu pedagogikoa Diablues eta Bluezifer bikotearen eskutik, Oihan Vega aktore eta komunikatzailea eta Nagore Sanz kontrabaxu-jotzailea lagun dituztela. 2014an Asier Elorzak eta Mikel Etxeberriak osatutako Diablues eta Bluezifer bikoteak ahots-jokoak, dinamismoa eta irudimena uztartzen dituen ikuskizuna eskainiko du.

Kontzertua York Bowen jaialdia (abuztuak 4)

GUGGENHEIM BILBAO

Musika klasikoaren York Bowen III. Nazioarteko Topaketaren amaierako kontzertua, Adrián Martínez Beorleguiren (biola, Erresuma Batuko Orkestra Nazionala) zuzendaritzapean, honako hauen parte-hartzearekin: Paul Silverthorne (biola, Londresko Orkestra Sinfonikoa) eta Wenting Kang (biola, Errege Antzokiko Orkestra Sinfonikoa), Pablo Suárez (biolina, Ensemble Praeteritum) eta Catalin Bucataru (biolina, Musikeneko irakaslea) eta Aldo Mata (biolontxelo, Catarina Gurska zentroko irakaslea). Schönberg, Bartok, Schullhof eta Mendelssohnen piezak joko dituzte.

Works & Process (abuztuak 21, 22 eta 23)

New Yorkeko Masterz At Work Dance Family dantza-taldearen emanaldiak Museoko plazan eta Entzungelan. Konpainia honek hainbat estilo uztartzen ditu, besteak beste street dance, street jazz, ballroom, vogue eta hip-hop. Courtney "Balenciaga" Washington koreografoak sortu eta gidatzen du taldea eta Works & Process programaren testuinguruan enkargatutako bi lan interpretatuko dituzte, mundu inklusiboagoa eta anitzagoa aldarrikatzen dutenak.